Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko apirilaren 14a, asteartea — 68 — Martes, a 14 de abril de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## EIBARKO UDALA

*Alkatetzaren ebazpena*

2019ko abenduaren 9an, Tokiko Gobernu Batzarrak zerga-egutegia eta aldizkako zergen ordainketa-aldia onartzea erabaki zuen.

Covid-19ak eragindako osasun-larrialdiko egoera eta Estatuak martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez ezarritako alarma-egoeraren adierazpena direla-eta, beharrezkotzat jotzen da egutegi fiskala aldatzea, herritarrei eta enpresei zergak ordaintzea errazteko.

Ikusita Covid-19ak eragindako osasun-egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarriaren lehen atala, zeinak sektore publikoko erakunde guztien prozedurak etetea deklaratzen baitu.

Ikusita 465/2020 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Hirugarren Xedapen Gehigarriari 5. eta 6. atal berriak eransten dizkion 463/2020 Errege Dekretua aldatzen duena, zeinak honela baitio: «(...) 6. 1. atalean aipatzen diren epe-mugak etetea eta administrazio-epeak etetea ez zaie aplikatuko araudi bereziaren mendeko zerga-epeei, eta ez die eragingo, bereziki, zerga-aitorpenak eta autolikidazioak aurkezteko epeei».

Ikusita ezen Covid 19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko neurri premiazkoei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Dekretu-Legearen 33. artikuluak aurreikusten duela likidazio bidez gestionatutako zerga-zorren ordainketen epeak luzatzea, baina ez duela inolako aurreikuspenik egiten jakinarazpen kolektibo bidezko aldizkako zorren ordainketari buruz.

Ikusita martxoaren 24ko 1/2020 Foru Dekretu-Araua, Covid-19aren osasun-krisiaren ondorioz zenbait zerga-neurri onartzen dituena, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru-zergen sistemaren mende dauden zergapekoei aplikatzekoa.

Kontuan harturik Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21. artikuluan, eta Covid-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko premiazko ezohiko neurriak ezartzen dituen 8/2020 Errege Lege Dekretuan eta krisiaren ondorioz tributu-izaerako zenbait neurri onartzen dituen martxoaren 24ko 1/2020 Foru Dekretu Arauan xedatutakoa, honako hau

EBAZTEN DUT

*Lehena.* 2020. urteari dagozkion aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak ordaintzeko egutegi fiskala eta borondatezko epeak aldatzea.

1.— Aldatu egiten dira aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak ordaintzeko honako borondatezko epeak:

— *Kontzeptua:* Onibarren zerga, Hiri-Zerga eta Landa-Zerga.

## AYUNTAMIENTO DE EIBAR

*Resolución de Alcaldía*

Resultando que el día 9 de diciembre de 2019 la Junta de Gobierno Local acordó aprobar el calendario fiscal y periodo de pago de tributos de carácter periódico.

Resultando que, debido a la situación de emergencia sanitaria ocasionada por el Covid-19 y la declaración de estado de alarma decretada por el Estado mediante Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, se considera necesaria la modificación del calendario fiscal con la finalidad de facilitar a la ciudadanía y empresas el pago de tributos.

Vista la Disposición Adicional Tercera apartado primero del Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, por el que se declara el estado de alarma para la gestión de la situación sanitaria ocasionada por el Covid-19, que declara la suspensión de los procedimientos de todas las entidades del sector público.

Visto el Real Decreto 465/2020, de 17 de marzo, por el que se modifica el Real Decreto 463/2020, por el que se añaden dos nuevos apartados 5 y 6 a la Disposición Adicional Tercera, con la redacción siguiente: «(...) 6. La suspensión de los términos y la interrupción de los plazos administrativos a que se hace referencia en el apartado 1 no será de aplicación a los plazos tributarios, sujetos a normativa especial, ni afectará, en particular, a los plazos para la presentación de declaraciones y autoliquidaciones tributarias».

Visto que el artículo 33 del Real Decreto-Ley 8/2020, de 17 de marzo, de medidas urgentes extraordinarias para hacer frente al impacto económico y social del Covid-19 prevé la ampliación de plazos de pagos de deudas tributarias gestionadas mediante liquidación pero no efectúa previsión alguna en cuanto al cobro de deudas periódicas mediante notificación colectiva.

Visto el Decreto Foral-Norma 1/2020, de 24 de marzo, por el que se aprueban determinadas medidas de carácter tributario como consecuencia de la crisis sanitaria del Covid-19, aplicable a los obligados tributarios sometidos al sistema tributario foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Considerando lo dispuesto en el artículo 17 de la Ley 2/2016 de Instituciones Locales de Euskadi, y en el el artículo 21 de la Ley 7/1985 de Bases de Régimen Local, en el Real Decreto-Ley 8/2020 por el que se establecen medidas urgentes extraordinarias para hacer frente al impacto económico y social del Covid-19 y en el Decreto Foral-Norma 1/2020, de 24 de marzo, por el que se aprueban determinadas medidas de carácter tributario como consecuencia de la crisis sanitaria del Covid-19

RESUELVO

*Primero.* Modificar el calendario fiscal y los periodos voluntarios de pago de diferentes deudas de vencimiento periódico y notificación colectiva correspondientes al año 2020.

1.— Se modifican los periodos voluntarios de pago de las siguientes de deudas de vencimiento periódico y notificación colectiva:

— *Concepto:* Impuesto sobre Bienes Inmuebles (Urbana y Rústica).

EK\CV GAO-I-2020-01765

*Aldia:* 2020koa. Urtekoa.

*Borondatez ordaintzeko epea:* 2020-08-01 / 2020-09-15.

*Borondatezko erreziboak kobratzeko garaia:* Borondatezko ordainketa aldiaren azken eguna.

2.— Ondasun Higiezinen gaineko Zerga ordaintzeko borondatezko epea aldatzearen ondorioz, beharrezkoa da Ondasun Higiezinen gaineko Zerga zatika ordaintzeko sistema bereziaren honako alderdi hauek aldatzea (sistema Eibarko Udalaren zergak eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarrerak biltzeari buruzko udal-ordenantzaren 23. artikulua aurreikusten da):

a) Ordainketen data: irailak 15 eta abenduak 23.

b) Eskaerak: irailaren 4ra arte.

3.— Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren kuotan familia ugariagatiko hobaria aplikatzeko eskabideak aurkezteko epeari dagokionez, adierazi behar da ezen Ordenantzan honako hau ezartzen dela: «Eskabideak aurkezteko epea 6 hilabetekoa izango da, apirila-iraila bitartean, eta ordaindutako zenbatekoaren itzulketa partzial gisa izapidetuko da.» Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 14. artikuluan berraztertze-errekurtsoei buruz ezarritakoarekin bat etorriz, «Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnean, errekurtsoa borondatezko ordainketa-aldian edo hura amaitu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean jarri ahal izango da. Beraz, errekurtsoak jartzeko epea 2020ko urriaren 15ean amaituko da.

*Bigarrena.* Udalak ematen dituen zerbitzuengatik (Euskaltegia, Musika Eskola, Zeramika, Marrazki Eskola, Etxez etxeko Laguntza...) sortzen diren edo sortu izan diren ordainagirietarako, horien ordainketa zerbitzua benetan ematearen mende geratuko da baldintzatuta.

Aurrekoaren ondorioz bidegabeko diru-sarrerengatik sortzen diren itzulketak 2020ko ekitaldi honetan zehar gauzatuko dira.

*Hirugarrena.* Martxoaren 24ko 1/2020 Foru Dekretu-Arauan ezarritako neurriak aplikatzea; izan ere, dekretu horren bidez Covid-19ko osasun-krisiaren ondorioz toki-erakundeentzat zerga-arloko zenbait neurri onartu ziren.

*Laugarrena.* Egutegi fiskalaren aldaketa jendaurrean jartzea, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuta.

Eibar, 2020ko apirilaren 3a.—Miguel de los Toyos Nazabal, alkatea. (1765)

*Periodo:* Del 2020. Anual.

*Periodo voluntario de pago:* 01-08-2020 / 15-09-2020.

*Cobro domiciliados:* Último día del periodo voluntario.

2.— Como consecuencia de la modificación del periodo voluntario de pago del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, se hace necesario modificar los siguientes aspectos del sistema especial de pago fraccionado del Impuesto sobre Bienes Inmuebles previsto en el artículo 23 de la Ordenanza municipal de recaudación de los tributos y demás ingresos de derecho público del Ayuntamiento de Eibar:

a) La fecha de los pagos: 15 de septiembre y 23 de diciembre.

b) Solicitudes: hasta 4 de septiembre.

3.— En relación al plazo relativo a la presentación de solicitudes para la aplicación de la bonificación por familia numerosa en la cuota del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, indicar que si bien en la Ordenanza se establece que «El plazo para la presentación de solicitudes será de 6 meses, durante el periodo abril-septiembre, y será tramitado como una devolución parcial del importe abonado.» de acuerdo con lo establecido respecto de los recursos de reposición en el artículo 14 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa «Tratándose de deudas de vencimiento periódico y notificación colectiva, el recurso podrá interponerse durante el periodo voluntario de pago o durante el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de finalización de aquél.» Por tanto, el plazo para presentar las mismas finalizará el 15 de octubre de 2020.

*Segundo.* Para aquellos recibos que se generen o se hayan generado por los servicios que se prestan por el Ayuntamiento (Euskaltegi, Musika eskola, Ceramica, Dibujo, Ayuda a Domicilio...) se supedita su cobro a la prestación real del servicio.

Las devoluciones que se generen por ingresos indebidos como consecuencia de lo anterior se materializarán a lo largo del presente ejercicio 2020.

*Tercero.* Aplicar las medidas establecidas para las entidades locales en el Decreto Foral-Norma 1/2020, de 24 de marzo, por el que se aprueban determinadas medidas de carácter tributario como consecuencia de la crisis sanitaria del Covid-19.

*Cuarto.* Someter la modificación del calendario fiscal a información pública, con publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Eibar, a 3 de abril de 2020.—El alcalde, Miguel de los Toyos Nazabal. (1765)